



## **IDAZKARI NAGUSIAREN INSTRUKZIOA, LANKIDETZA HITZARMENAK ONARTZEKO ADMINISTRAZIO ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEARI BURUZKOA.**

2019ko urriaren 24an, idazkari nagusiak instrukzio bat argitaratu zuen, Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendu Erregelamenduaren II. tituluaren III. kapituluaren aurreikusitako lankidetza hitzarmenak onartzeko administrazio espedienteak izapidetzeari buruzkoa.

Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legeak dio unibertsitateak ahalmena duela, bere autonomiaz baliatuta, egoki iritzitako kontratuak eta hitzarmenak egiteko, dagokion sailarekin edo beste unibertsitate batzuekin, edota erakunde publiko eta pribatuekin, EAEn eta erkidego horretatik kanpo, legeak berak aurreikusten dituen helburuak betetzeko.

Esperientziak agerian utzi du lankidetza hitzarmenek duten garrantzi gero eta handiagoa, ikuspegi kuantitatibotik nahiz kualitatibotik, eta haien izapidetzean eta administrazio kudeaketan sortzen diren oztopoak gainditzeko beharra, hitzarmenak errazago onartzeko, modu eraginkorrago batean, eta administrazio prozedurak arrazionalizatzeko eta bizkortzeko, ordenamendu juridikoa errespetatuz beti.

Beraz, errektore taldeak "leihatila bakarra" ezartzeko hartu duen erabakiaren aurrean, espediente hauek izapidetzeko proiektu "pilotu" gisa (zeinaren kudeaketaz Idazkaritza Nagusia arduratuko baita), dagokion egokitzapenak egin behar dira instrukzio horretan eta, hartan egiten den moduan, zehaztu egin behar dira prozedura izapidetzeari lotutako izapideak eta gaiak, esperientziaren arabera zehaztapen horiek behar dituztenak.

Horrenbestez, aintzat harturik Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 6.1 artikuluan jasotako eskumenak, honako hau erabaki da:

### **ERABAKIA**

**Lehenengoa.-** Onartzea lankidetza hitzarmenak onartzeko administrazio espedienteak izapidetzeari buruzko instrukzioa, eranskinetan jasotakoaren arabera, eta instrukzioa argitaratzea web orri instituzionalean, 2024ko uztailaren 1(e)ra arteko indarraldiaz.

**Bigarrena.-** Baliorik gabe uztea 2019ko urriaren 24an idazkari nagusiak emandako instrukzioa, Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendu Erregelamenduaren II. tituluaren III. kapituluaren aipatutako lankidetza hitzarmenak onartzeko administrazio espedienteak izapidetzeari buruzkoa.

Aitor Zurimendi Isla  
Idazkari nagusia



## ERANSKINA

### 1.- NORI BIDALTZEN ZAIZKIO LANKIDETZA HITZARMEN PROPOSAMENAK? ARAU OROKORRAK.

1.1.- Instrukzio honetan jasotako administrazio izapidetzea eska dezakete unibertsitate ikastegiekin, sailekin, ikerketako unibertsitate institutuekin, ikertaldeekin, zerbitzuekin eta UPV/EHUren nortasun juridikorik gabeko gainerako egiturekin, bai eta errektorearen gobernu taldeko kideekin ere.

Edonola ere, instrukzio honen ondorioetarako, organo proposatzaileak hartu ahal izango da errektorearen gobernu taldeko kide bat, eta haren eginkizuna izango da lankidetzaren hitzarmena unibertsitatearentzat beharrezkoa, egokia edo komenigarria den baloratzea, hitzarmena izapidetzea ala ez erabakitzea, eta, hala badagokio, organo eskudunari aurkeztea, onar dezan (Gobernu Kontseilua edo dagokion Campuseko Batzarra). Hitzarmena izapidetzearen alde badago, esan nahi du hitzarmena izapidetzea komenigarria edo onuragarria dela unibertsitatearentzat, lagunduko duelako erakundearen helburu propio edo estrategiko bat betetzen edo unibertsitatearen kudeaketa publikoa hobetzen, unibertsitatearen baliabide eta zerbitzu publikoak batera erabiltzea erraztuz, adibidez. Eta hori guztia aurrekontu egonkortasunerako eta finantza jasangarritasunerako legeria betez.

1.2.- Idazkaritza Nagusiaren zerbitzuak izapidetuko ditu administrazio espedienteak, baliabide elektronikoen bidez, eta lankidetzaren hitzarmen proposamenak helaraziko zaizkio, instrukzio honetan zehaztutako moduan. Lege Zerbitzuak lagunduko dio, era horretako laguntza behar duen gaitan.

Hala, izapidetzea eskatzen dutenek lankidetzaren hitzarmen proposamena igorriko dute [hitzarmenak@ehu.eus](mailto:hitzarmenak@ehu.eus) helbide elektronikora, instrukzio honen 2. eta 3. ataletan aipatutako datuak, dokumentuak edo edukiak erantsita.

1.3.- Idazkaritza Nagusiak lankidetzaren hitzarmen proposamena igorriko dio organo proposatzaileari, dagokion dokumentazioarekin batera, 10 eguneko epe baterako, 1.1 azpitalean aurreikusitako ondorioetarako, salbu eta organo hori bada espedientea izapidetzea eskatu duena. Epe hori igarotzen bada aurkako baloraziorik gabe, izapidetzea hasiko da, eta hura eskatu duenari jakinaraziko zaio. Bestela ere berdina berdina jakinaraziko zaio.

1.4.- Proposamena kontratu bat edo beste tresna juridiko bat denean, lankidetzaren hitzarmena izan ordez, edo beste prozedura bat erabili behar denean, edota lankidetzaren hitzarmena onartzea ez dagokionean Gobernu Kontseiluari edo Campuseko Batzarrari, Idazkaritza Nagusiak horren berri emango dio organo proposatzaileari eta, hala badagokio, hitzarmena izapidetzea eskatu duenari. Zehazki, instrukzio honek araututako prozeduratik kanpo daude Gobernu Kontseiluaren Erregelamenduaren 25. artikuluan aipatutako hitzarmenak.

### 2.- ZER DOKUMENTU ERANTSI BEHAR ZAIZKIO LANKIDETZA HITZARMEN BATEN ADMINISTRAZIO ESPEDIENTEARI?

Izapidetua izan dadin, honako dokumentu hauek erantsi behar zaizkio lankidetzaren hitzarmen proposamen bati:

1. Memoria, 2.1 azpitalean jasotako edukiarekin.
2. Hitzarmenaren testuaren zirriborroa, 2.2 azpitalean aipatutako gutxieneko edukiarekin.
3. Hitzarmena izapidetzea eskatu duen pertsonaren harremanetarako datuak (telefonoa eta helbide elektronikoa instituzionala), izapidetzean izan litezkeen gorabeherak konpontzeko.



## 2.1.- Memoria.

Izapidetua izan dadin, hitzarmen orori erantsi behar zaio justifikazio memoria bat, honako hauek jasoko dituen: hitzarmena izenpetzearen onura edo beharra, garatu beharreko jarduerak (iraupena eta egutegia zehaztuta, bai eta onuradun posibleak ere, halakorik balego), aldean konpromisoak, beharrezko azpiegitura eta hitzarmenaren helburuak betetzeko zer langile eta baliabide erabiliko diren.

Halaber, aztertuko ditu sinatu nahi den hitzarmenaren beharra eta egokitasuna, haren inpaktu ekonomikoa eta hitzarmenean jasotako jardueraren kontratuz kanpoko izaera.

Beharra eta egokitasuna, hain zuzen ere, lankidetzat hitzarmena izapidetzea eskatu duenaren balio iritzi bat da, eta esan nahi du hitzarmena izenpetzea komenigarria edo onuragarria dela unibertsitatearentzat, lagunduko duelako haren helburu propio edo estrategiko bat betetzen edo unibertsitatearen kudeaketa publikoa hobetzen, unibertsitatearen baliabide eta zerbitzu publikoak batera erabiltzea erraztuz, adibidez. Eta hori guztia aurrekontu egonkortasunerako eta finantza jasagarritasunerako legeria betez.

Inpaktu ekonomikoari dagokionez, hitzarmenek jasagarriak izan behar dute finantza ikuspegitik, sinatzaileek gaitasuna izan behar dute hitzarmenaren indarraldian hartuko diren konpromisoak finantzatzeko eta egingo dituzten finantza ekarpenek ez dituzte gaintutako hitzarmena betearaztean sortutako gastuak. Hortaz, nahitaez aurkeztu beharko da sarreraren eta gastuen aurrekontua, eta aurrekontu horretan jasoko da, alde batetik, UPV/EHUK egin dezakeen diru ekarpena; bestetik, diruzkoak ez diren beste ekarpen batzuk, hala nola langileen orduak edo gainerako kostuak (azpiegituraren erabilera).

Gainera, indarrean dagoen aurrekontu araudiaren arabera, hitzarmenen klausula batean jasoko da hitzarmena betearaztean sortutako zeharkako kostuak unibertsitateari ordaintzea (hornidura elektrikoa, gasa, azpiegiturak, etab.). Errektore taldeari dagokio betebeharrak horretatik salbuesteko erabakia hartzea, hitzarmena interes estrategiko edo sozial berezikiotzat hartzeagatik.

## 2.2.- Lankidetzat hitzarmenaren testuaren zirriborroa.

Honako hau izango da lankidetzat hitzarmen proposamen guztien gutxieneko edukia:

- a) Hitzarmena egin edo sinatuko duten organoak, jarduteko duten gaitasun juridikoa, alde bakoitzaren eskumena eta jarduteko eta ordezkatzeko duten erakundea behartzeko duten gaitasuna elkarri aitortzeko formula.
- b) Hitzarmenaren xedea eta xede hori betetzeko subjektu bakoitzak egin beharreko jarduerak, lortutako emaitzen titulartasuna adieraziz, hala badagokio.
- c) Konpromiso ekonomikorik izanez gero, urtekako denbora banaketa adieraziko da, eta dagokion aurrekontuari egotzi, aurrekontu legerian jasotakoaren arabera.
- d) Hitzarmena finantzatzeko modua eta beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak, hala badagokio. Bereziki, kontuan izango dira hitzarmena betetzeak unibertsitatearentzat izango dituen zeharkako kostuak. Unibertsitatearentzako diru sarrerarik egonez gero, UPV/EHUK aurrekontu araudiari jarraituz, % 18 erabiliko da kostu horiek ordaintzeko, eta horri buruzko klausula bat sartuko da. Unibertsitatearentzako ekarpen espezifikorik ez badago, ahaleginduko da parte hartzen duten erakundeek kostu horiek estali edo konpentsatu ditzaten. Soil-soilik salbuetsiko da zeharkako kostuak onartzeko betebeharratik errektore taldeak erabakitzen duenean hitzarmena interes estrategiko edo sozial berezikiotzat dela.
- e) Hitzarmena kudeatzeko antolakuntza baten premia edo ez, bere gain hartuko lukeena, besteak beste, hitzarmenaren inguruan sor daitezkeen interpretazio eta betetze arazoak ebazpena.
- f) Hitzarmenaren indarraldia eta luzapena, sinatzaileek hala erabakiz gero. Oro har, indarraldia ez da izango 8 urtetik gorakoa, luzapenak barne. Zientziari buruzko Legearen 34.2. artikuluan aipatutako hitzarmenek 5 edo 10 urteko indarraldia izan dezakete, kasuen arabera, eta gehienez ere 5 edo 7 urtez luzatu ahal izango dira, hurrenez hurren.
- g) Hitzarmena azkentzea aurreko paragrafoan aurreikusitakoaz bestelako arrazoi bategatik, bai



eta abian diren jarduerak amaitzeko modua ere, hitzarmena amaituz gero.

- h) Kalte-ordaina zehazteko irizpideak aldeetako batek hitzarmena betetzen ez badu.
- i) Datu pertsonalen tratamenduari aplikatu beharreko araubidea, hala badagokio.

### **3.- ZEINTZUK DIRA IZAPIDEAK?**

#### **3.1.- Aurkezpena.**

Lankidetzaz hitzarmen proposamen guztiek zehatz-mehatz emango dituzte ondoko datuak eta informazioa, espedientea behar bezala kudeatzeko eta, hala badagokio, haren jarraipena eta kontrol lana egiteko.

- Hitzarmenaren izenburua.
- Zer erakunderekin egin den hitzarmena.
- Hitzarmena onartzeak UPV/EHUrentzat dakarren onuraren laburpena: hitzarmenak unibertsitatearen zer helburu betetzen laguntzen duen, UPV/EHUri eginiko ekarpen ekonomikoa, halakorik badago, zer GJH betetzen laguntzen duen, etab.
- UPV/EHUn izenean hitzarmena sinatuko duen pertsona.
- Sinadura dataren aurreikuspena, hitzarmenaren iraupena eta haren luzapena, hala badagokio.

2. atalaren arabera, Idazkaritza Nagusiak egiaztatu egingo du aurkeztutako dokumentazioa nahikoa den ala ez administrazio espedientea izapidetzeko.

Akatsik dagoela edo zerbait falta dela ikusten badu, horren berri emango dio izapidetzea eskatu duenari, harremanetarako pertsonaren bidez, zuzendu beharreko gabeziak adieraziz.

Akatsen berri eman eta horiek zuzentzen ez badira, izapidetzea amaitu eta espedientea artxibatuko da, nahiz eta izapidetzeari berrekiteko modua izango den, aurkitu diren akatsak edo gabeziak zuzenduz gero.

Erabakitzen bada hitzarmenak onarpen prozedura espezifiko bat duela eta, beraz, Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendu Erregelamenduaren II. tituluaren III. kapituluak aurreikusitako prozeduratik kanpo dagoela, edota kontratu edo bestelako tresna juridiko bat dela, 1.3 azpiatalean adierazitakoaren arabera jokatu da.

#### **3.2.- Prozeduraren instrukzioa.**

##### 3.2.1- Arau orokorrak

Idazkaritza Nagusiak noiznahi egin ahal izango ditu idazketari buruzko oharra eta espedientea izapidetzea eskatu duenari bidaliko dizkio, iradokizun horiek direla-eta nahi izanez gero aldaketaren bat egiteko. Aldaketak onartzen diren ala ez adierazten duen erantzuna jaso ondoren, edo proposamenak baldintza formalak betetzen dituela jakinarazi ondoren, aurrera jarraituko dute izapidetzek.

Idazkaritza Nagusiak 3.2.2 puntuan aipatutako txostenak eskatuko ditu, gehienez ere 15 eguneko epean eman beharrekoak.

Ez badira epe horretan ematen, atzerapenaren arduradunaren erantzukizuna gorabehera, izapidetzeak jarraitu ahal izango du, nahitaezko txostenak direnean izan ezik.

Oro har, txostenak ez dira lotesleak, eta horrek esan nahi du hitzarmena onartu eta sinatu egin daitekeela espedienteak aurkako txostenen bat eduki arren. Aurkako txosten bat edukita hitzarmen bat izapidetzen jarraitzea egokia den ala ez erabakitzea aukera kontu bat da, organo proposatzaileak baloratu beharko duena espedientearen izapidetzea amaitu ondoren.



Gerentziaren txostena loteslea da operazioaren aurrekontu egokitzapenari dagokionez (ez, ordea, haren txostenaren gainerako gaietara dagokienez, halakorik izanez gero). Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48.5 artikulua honela dio: **"...hitzarmenek jasagarri behar dute finantzen aldetik, eta sinatzaileek gaitasuna izan beharko dute beren gain hartutakoak finantzatzeko hitzarmenak dirauen bitartean"**. Beraz, Gerentziaren txostenak badio aurrekoa ez dela horrela edo gastuak ez duela aurrekontu kontsignaziorik, ezin izango da izapidetzen jarraitu.

Testuak aldatu egiten dira sarri, egokitzeko Lege Zerbitzuak edo beste errektoreordetza batzuetako teknikari-letraduek dagokien arloari buruz eginiko legezketasun oharretara. Horrek ez du esan nahi espedientea berriro osorik izapidetu eta prozeduraren izapidetzea berriro hasi behar denik, txostena aurkakoa denean izan ezik.

Aldaketak berekin dakarrenean testuaren atal baten aldaketa esanguratsua, berriro ere eskatu beharko zaio txostena errektoreordetzari edo aldaketen eragina izango duen organoari.

### 3.2.2.- Txostenak

a.- Errektoreordetzen, ikastegien, sailen, institutuen, zerbitzuen eta beste organo batzuen txostenak.

Idazkaritza Nagusiak txostena eskatuko die lankidetzak hitzarmenaren edukiak eragiten dien unibertsitateko organo edo unitateei.

Adibidez, arloko edo campuseko errektoreordetza guztien txostena, baldin eta zerikusia badute hitzarmenaren edukiarekin, kontuan hartuta bakoitzaren jardura eremuak. Edo ikastegien, sailen, unibertsitate institutuen eta zerbitzuen txostenak, baldin eta zuzenenean eragiten badiete hitzarmenaren jarduerak, aintzat harturik kasu bakoitzean dituzten eskumenak.

Hitzarmen jakin batean unibertsitateko ikastegi, sail edo institutu baten txostena behar bada, dekanotzara edo haren zuzendaritzara jo behar da, eta ez da beharrezkoa txostena egitea egitura horietako kide anitzeko organoetan.

b.- Gerentziaren txostena.

Nolanahi ere, Idazkaritza Nagusiak txostena eskatuko dio Gerentziari, eta honek bere iritzia emango du hitzarmen bakoitzean jasotako operazioen aurrekontu egokitzapenari buruz.

Txosten hori loteslea izango da eta kontuan izango du bereziki memoriak jaso beharreko "inpaktu ekonomikoari" buruzko informazioa, eta egiaztatu egingo du hitzarmenak jasotzen duen konpromiso ekonomikoaren **"urtekako denbora banaketa... bai eta dagokion aurrekontuari zehazki egotziko zaiona ere, aurrekontu legeriak xedatu duenaren arabera"**.

Halaber, egiaztatu egingo du zeharkako kostuak estalita daudela edo hori horrela ez izateko baldintzak betetzen direla.

Gai ekonomiko hutsez gain, hitzarmenak Gerentziaren eskumen eremuan eragina duten beste gai batzuk ere jaso ditzake, eta horiei buruzko informazioa eman behar du (adibidez, hitzarmenak ondare operazioen bat dakarren, pertsonal kontratazioa, etab.).

c.- Lege Zerbitzuaren txostena.

Behin aurreko txostenak eginda, txostena eskatuko zaio Lege Zerbitzuari, eta ordura arte izapidetutako espedientea helaraziko zaio.

d.- Ez zaio txostenik eskatuko espedientea izapidetzea eskatu duenari.



#### **4.- LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA**

- 4.1.- Behin izapidetuta, Idazkaritza Nagusiak espedientea bidaliko dio organo proposatzaileari, onartzeko eskumena duen organoari aurkez diezaion (zer organo den adieraziko zaio). Onespenik behar ez badu, berdin adieraziko zaio, bai eta izapidetzea eskatu duenari ere, hala badagokio.
- 4.2.- Organo proposatzaileak egin beharrekoak egingo ditu lankidetz hitzarmenari buruzko puntua sartzeko organo eskudunaren bilkuraren gai-zerrendan.

Lankidetz hitzarmena onartzea Gobernu Kontseiluari badagokio, organo proposatzaileak haren esku jarriko ditu izapidetutako espedientea eta hitzarmena onartzeko akordio proposamena, organo horren titularrak sinatuta, aintzat harturik Gobernu Kontseiluari proposamenak aurkezteko arau orokorrak, organo horren Funtzionamendu Erregelamenduaren 17. eta 18. artikuluetan jasotakoak.

Campuseko Batzarra baldin bada akordioa onartzeko eskumena duen organoa, haren esku jarriko dira izapidetutako espedientea eta hitzarmena onartzeko akordio proposamena, organo proposatzailearen titularrak sinatuta, aintzat harturik Campuseko Batzarraren Funtzionamendu Erregelamenduaren arauak.

- 4.3.- Hala ere, ez da organo eskudunaren onespenik beharko, sinaduraren aurretik, dagokion lankidetz hitzarmena...:

- egokitzen bada Gobernu Kontseiluak onartutako eredu edo zuzentarauetara, edo
- aldez aurreko onespen formula bat ezarri bada (esparru hitzarmen batzuen kasua izan ohi da, haien garapen hitzarmenei dagokienez).

- 4.4.- Behin hitzarmena onartuta, aipatutako salbuespenekin, sinatu egingo da.

#### **5.- NORI DAGOZKIO LANKIDETZA HITZARMENAREN BETEARAZPENA, JARRAIPENA ETA KONTROLA?**

- 5.1.- Oro har, lankidetz hitzarmenaren organo proposatzaileari dagokio hitzarmenak betearaztea.

Izapidetzea eskatu denean unibertsitate ikastegiekin, sailekin, ikerketako unibertsitate institutuekin, ikertaldeekin, zerbitzuekin eta UPV/EHUren nortasun juridikorik gabeko gainerako egiturekin hitzarmena onar dezaten, organo proposatzaileak hitzarmena betearazteko eskatu ahal izango die, hitzarmena onartzeko akordioan.

- 5.2.- Organo proposatzaileak Idazkaritza Nagusira bidaliko du, formatu elektronikoan, alde guztiek izenpetutako lankidetz hitzarmena, hitzarmenaren erregistroan inskribatzeko eta dagozkion jarraipen eta kontrol zereginak egiteko, behar besteko aurrerapenez (askotariko gaiekin lotutako zereginak: hitzarmenaren indarraldia, salaketa, indarraldiaren luzapenak, eduki aldaketak edo, hala dagokionean, Kontu Auzitegira bidaltzea).